

Abaurrepeko Bikario Jaun noblearen bertsoak

JUANTXO URDIROZ PÉREZ *

Zorioneko aurkikuntza honen meritua Ines Iribarreni zor diogu. Ines Iribarrenek, beste askok bezala, bizitza guztian lan eta lan aritu eta gero, orain, gustoko gauzak egiteko parada dauka. Euskara ikasten hasi, eta txikitant Abaurrepean ikasi zituen euskal hitz bakan horiek (*gaugaldu; horra bada; sabarrauts; jaio beintzi Beleneko hiria; txirristi-mirristi, gerrena plata, olio zopa, kikiri salda, hura bero, klik; birus tiraka, birus tiraka; zupazter-eta*) altxor baten perlak iruditu zaizkio. Eta emakume honi zeruko irakasle misteriotsu batek lagundu nahian edo, Abaurrepeko sortetxeko aparaxu zaharren artean euskaraz danden bertso hauen oparitu ditkio.

Abaurrepeko Lopinda etxean bertsoak agertzea ez da harrizkoa. Jose Manuel Arrese, 1850 urtearen inguruan jaioa, Inesen aitatxi, bersozalea zen, eta bertsoak etxeko giroan botatzen ere ibilia; Jose Maria Arrese osabak (1888-1945) kitarratxoa hartu eta Ameriketara ibili zeneko habanerak kantatzen zituen gerrate zibilaren aurreko negu haietan. Ez dago esan beharrik biak euskaldunak zirela, eta baliteke bertsoak lehendabizikoak eginak eta bigarrenak jasoak izatea.

Abaurrepeko San Martin eliza aipatzearekin batera, horren inguruan istorioa kokatzeak, eta bertako hizkera erabiltzeak herri horri estu-estu heltzen dio, eta abaurpetar batek egina dela aisa sinistekoa da.

Eta sormen-lana agerikoa izanik, ez da guti beste bertsoetatik ekarri duena ere. Horixe da, hain zuzen, poeta herrikoi baten lana, ahozko literatur tradizioan har-emanetan ibiltzea.

Kontatzen den istoria ez da ezaguna, ez Abaurrepean, ez Abaurregainean. *Abaurregaineko Maria Arozarenan gogoan dauna bertso hau. Mantu beltza lurrereino, cabardina erdireino.* Istorioaren protagonista nagusia bikario bat dugu. Badirudi bikario honek etxetik elizaraino eguneroko ibildalditxoa egitean, narratzaileak leihoen atzean egon daitezkeen ikusleen ikuspegia hartzen

* Lizarreria Institutuko irakaslea

duela, eta, etxez etxe bikarioaz ohartzeko eskatzen duela, erakusleak eta deien bidez.

Poeman ez da inongo hiz zatarririk, gizon horren irudia goratzeko hitzak baizik. Akaberan, “fulana andre” bat daukagu. Bi mutur horien tartean zer gertatzen ote den ez da azaltzen. Bertso hauek kontatzen dutena gauza jakina izanen zen, eta ez zegoen azaltzeko beharrik.

Hortxe ditugu, bada, Abaurrepeko bertsoak.

ABAURREPEKO BICARIO JAUNOBLEAREN BERTSOAK

San Martinen atari
 maistro onak(sic) ez arri
 orra bada Bicario jaunableori
*gau*¹ sarzean agueri.
Gau sarzean agueri eta
aterazean obequi
aterazean obequi eta
bidean yoaitean cortesqui.
Elizarian iturri
*urre birus*² *derati*³
 orra bada Bicario jaunableorrec
gau icuzten badaqui.
*Gau icuzi gau chucatu*⁴
*imajina du iduri*⁵
*Echean eder mandio*⁶
mandazai orrec adio
 orra bada Bicario jaunableorrec
zazpi erresuma balio
*Echean eder guerrena*⁷
ardanzean da goyena
 orra bada Bicario jaunableori
baradizuan goena.

1. *Gau*. Aukeran hiru hitz dauzkagu. *Gau* ‘hau’, erakuslea *gan* ‘han’, aditzondoa edota *gau* izena. Azken hirugarren hau aproposena iruditzen zaigu.

Nere esker beroenak Mikel Belasko adiskidearentzat, emandako laguntzarengatik.

2. *Hari*.

3. *Jario-ren* adizki bat. Aldera bedi bertso honekin:

Hilo de oro mana,

la fontana,

hilo de oro mana.

Margit Frenk Alatorre. *Lírica española de tipo popular*. pp. 180. Cátedra. Madrid. 1982.

4. *Idortu*.

5. D. Peillen. “Eske pertsuen bilduma”. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*. Iruñea. 22. zenb. 1976. Plomi. Aldera bedi bertso honekin:

etxe hontako etxeoandreak

Ama Birjiña dirudi.

6. Behitegi. Aldera bedi bertso honekin:

Etxe honek goian du

goian sapailloa.

D. Peillen. *Idem*. 70 orri.

7. D. Peillen. *Idem*. 85. orri.

Etxean eder gerrena

etxekandere lerdena.

*Camieta*⁸ da pintatu
ichasoan da plantatu
*obria benedicazen*⁹
orra bada Bicario jaunableori
ainguiruequin da minzazen.
Bicario jaunableori
Elizan bere arrosario sainduequin
orra bada ainguiruec cantatzen diote
bere escu sainduekin (sic).
*Sagarra*¹⁰ da sagarzean
erori eta lur ozean,
orra baa Bicario jaunableorec
*amabi ainguru*¹¹ biozean.
Ardiac daza
*belarrez erriberaco canpadres*¹²
orra bada Bicario jaunableorrec
bularrarte ori zilarres.
*Bularrarte*¹³ ori zilarres
eta beguiac orre botones
beguiac urre botones eta
escuac urre zilarres.
*Ceruan eder*¹⁴ izarra
errecaldeco lizarra
orra bada Bicario jaunableorrec
urre birus du bizarra
Elizan eder liburu
*urre birus inguru*¹⁵

8. Ganibeta.

9. D. Peillen. *Idem.* 83 orri.

Ezkilak errepikatzen
yendea zer den galdetzen:
Lekarozko Erretor jauna
aingeruak mintzatzen.

10. D. Peillen. *Idem.* 75 orri.

Ilarra zaiku loratu
orainik ezta lekatu.

11. D. Peillen. *Idem.* 76 orri.

amalau mila aingeruekin
paradisuan sar zaitetzilla.

12. *Campadera.* Terreno próximo al corral del ganado, donde retienen durante un día a las ovejas que acaban de parir/Conjunto de ovejas y caloyos que permanecen juntos en la campadera. (Ribera, Roncal, Salazar). J.M. Iribarren. *Vocabulario Navarro.* Príncipe de Viana. Iruñea. 8.ª ed. 1994. 114 orri.

13. D. Peillen. *Idem.* 53 orri.

Urre gorrizko bizarra eta
urre zurizko bizkarra

14. D. Peillen. *Idem.* 53 orri.

Or goien izarra,
errekaldean lizarra.

15. D. Peillen. *Idem.* 59 orri.

Eder elizan liburu
usuak haren inguru.

*orra bada Bicario jaunableori
baradizuan ainguru
Elizan eder caliza
soinean super peliza
orra bada Bicario jaunabloeri
meza email cortesa.
Mantu belza lurrereino
cabardina erdireino¹⁶
orra bada Bicario jaunableorren pareric ezta¹⁷
Salamantic gonaino.
Elizan eder arri gorri¹⁸
anda jarri Bicario jaunableorri
orra bada errico chiquin andi guziec¹⁹
barca dezoten berorri.
Elizan eder arguizari
echequi²⁰ eta arguilari
orra bada fulana andre ori
Bicario jaunableorren cerbizari.*

16. D. Peillen. *Idem.* 75 orri.

*Zaia duzu lurreraiño
sederia erdiraiño.*

17. D. Peillen. *Idem.* 53 orri.

*Berori bezin gizon presturik
erri honetan ez al da.*

Idem. 75 orri.

*zu bezalakorik ez da sortu
Sevilla-tik onaraino.*

18. D. Peillen. *Idem.* 59 orri.

*Eder elizan aldare
arri landuzko pillare.*

19. D. Peillen. *Idem.* 59 orri.

*etxe ontako txiki-aundiak
Paradisuan aingeru.*

20. *Piztu.*

Camista da pintate
 sehasan da plantate
 orra bada bicario jaunablori
 barabrian puntate
 Biquias dira ospicaseu
 orra bada bicario jaunablori
 angurinequin da misasau
 bicario jaunablori
 Siran bere arrosio sainduequin
 orra bada angurineu cantarian dicit orra
~~orra bada angurineu cantarian dicit orra~~
 Jagarra da zagarrau
 orri eta lur trera
 orra bada bicario jaunablori
 anahi angurineu hizean
 Andias dora
 belanor sordemir campades
 orra bada bicario jaunablori
 belaparte ori rilanes
 Pedarte belaparte ori rilanes
 eta biquias orre botones
 biquias orre botones eta
 orre orre orre rila res

Ceruan edor irava
 orrecaldees lirava
 orra bada bicario jaunablori
 orre bira du birava
 Siran edor libere
 orre bira inguru
 orra bada bicario jaunablori
 barabrian angurineu
 Siran edo calira
 siran super pelira
 orra bada bicario jaunablori
 orra bada bicario jaunablori
 orra bada bicario jaunablori
 Cabardina edorineu
 orra bada bicario jaunablori pareri
 Salasauca te goaues
 Siran edo orri gorri
 anda jori bicario jaunablori
 orra bada orri eliquin andi quise
 barea deraten beroti
 Siran edo argurari
 eliqui eta argulari
 orra bada fulana ando ori
 bicario jaunablori cerbirari

LABURPENA

Artikulu honetan Abaurrepean berriki aurkituko bertsoa dakarzkigu egileak, euskal ahozko literaturari estuki eusten dizkietenak. Bertso hauek jaso diren etxeko giroaren berria ere dakar, bertsoen egilea Abaurrepean sortua delako susmoa du-eta.

RESUMEN

En este artículo el autor nos trae una balada recientemente encontrada en Abaurrea Baja. Está estrechamente relacionada con la literatura oral vasca. También muestra el ambiente de la casa en la que se han encontrado estos versos, ya que el autor opina que la balada surgió en Abaurrea Baja.

RÉSUMÉ

Dans cet article l'auteur nous découvre une ballade récemment trouvée à Abaurrea Baja. Elle est étroitement liée à la littérature orale basque. Elle montre aussi l'ambiance de la maison où elle a été trouvée, car l'auteur pense que la ballade est née à Abaurrea Baja.

ABSTRACT

In this paper the author presents a ballad recently found in Abaurrea Baja which is intimately related to the Basque oral literature. The atmosphere of the house where it was found is also explained, as the author thinks that the ballad arose in Abaurrea Baja.